

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	JANTZIGINTZAKO MATERIAL, ERREMINTA, MAKINA ETA EKIPOAK	Iraupena	70
Kodea	MF1225_1		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Ehun eta larruzko artikuluen konponketa- eta moldaketa-zerbitzuetan bezeroei informazioa eta arreta ematea	Iraupena	50
	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)		60
	Arropak eta etxeko oihalak konpontzeko eragiketak.		40
	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)		60
	Arropak moldatzea		60
	Arropak pertsonalizatzea		30
	Ehun eta larruzko arropa eta artikuluen konponketa eta moldaketetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1225_1 JANTZIGINTZAKO MATERIAL, ERREMINTA, MAKINA ETA EKIPOAK PRESTATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Jantzigintzako teknika eta prozesu egokienak lotzea, ehun-materialen aplikazioaren arabera, baita konposizioaren, portaeraren eta manipulazioaren arabera ere.

EI1.1 Ehun-materialen konposizioa identifikatzea, ukimen eta ikusmenaren bidezko prozedura errazen bidez ezagutuz, etiketak interpretatuz eta abar.

EI1.2 Hainbat ehunen konposizioa ezagutzea, haien identifikazio-etiketak irakurriz, baita erabileraren eta manipulazioaren ondoriozko portaeraren bidez ere.

EI1.3 Arropa jakin batzuen osagai diren jantzigintzako materialak adieraztea, hala nola ehunak, forruak eta horniak, eta konposizioaren, portaeraren eta erabileraren arabera sailkatzea.

EI1.4 Artikulu bat egiteko teknikarik egokiena deskribatzea, kontuan hartuz artikulu hori osatzen duten materialen ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza.

EI1.5 Arropa baten jantzigintza-prozesua eta akaberak deskribatzea, kontuan hartuz materialaren ezaugarriak.

EI1.6 Jantzigintzako materialak identifikatzeko kasu praktikoko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Materialak ikusmenaren eta ukimenaren bidez behatzea, ezagutzeko.
- Adierazitako materialen ezaugarriak deskribatzea.
- Kasu praktikoko ehunak haien egokienak diren material osagarriekin lotzea.
- Materialen arabera saihestu beharreko jantzigintza-teknikak adieraztea.

EI1.7 Ehun-materialekin egindako arropa bat behatzeko kasu praktikoko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Arropa arretaz behatzea, eta haren egitura ezagutzea.
- Erabilitako jantzigintza-teknikak identifikatzea.
- Arropa osatzen duten materialak azaltzea.
- Erabilitako puntada- eta jostura-motak zehaztea.
- Jantzigintza-prozesuan erabilitako makina eta erremintak sailkatzea.

A2: Jantzigintzan erabiltzeko ile-larru eta larruak sailkatzea, egindako arropen arabera, baita manipulatzeko teknikarik egokienak ere.

EI2.1 Ile-larru motak deskribatzea, baita arropak eta ile-larruzko artikulua egiteko dituzten aplikazioak ere.

EI2.2 Ile-larru mota ezberdinen portaera eta ezberdintasunak eta erabilerarik ohikoenak adieraztea.

EI2.3 Artikulu bat egiteko teknikarik egokienak azaltzea, kontuan hartuz ile-larruaren ezaugarriak eta lortu nahi den emaitza.

EI2.4 Arropa baten jantzigintza-prozesua eta akaberak deskribatzea, kontuan hartuz ile-larruaren ezaugarriak eta ezberdintasunak.

EI2.5 Arropak egiteko erabiltzen diren ile-larru eta larruak ezagutzeko kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Ile-larru mota identifikatzea, jatorriaren eta ikusmen eta ukimenaren arabera.
- Ile-larruen akats eta anomalia ohikoenak adieraztea, ezaugarrietan eta jantzigintzako aplikazioetan eragina dutenak.
- Adieraztea zein den ile-larru ezberdinen portaera parte hartzen duten jantzigintza-prozesuetan, baita haien erabilera-xedea ere.
- Ile-larruen ezaugarri eta parametroak adieraztea berariazko terminologia, neurri eta unitateen bidez.
- Ile-larruen laginen datu karakteristikoak adierazten dituzten fitxa teknikoak interpretatzea eta betetzea.

EI2.6 Ile-larruzko hainbat arropa behatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Arropa arretaz behatzea, eta haren egitura ezagutzea.
- Ezaugarrien arabera erabilitako jantzigintza-teknikak identifikatzea.
- Erabilitako ile-larru mota adieraztea.
- Arropa osatzen duten materialak azaltzea.
- Mihizatzeko erabilitako teknikak zehaztea.
- Jantzigintza-prozesuan erabilitako makina eta erremintak sailkatzea.

A3: Josiz nahiz mihiztatuz eta eskuz nahiz makinaz jantziak egiteko prozesuan parte hartzen duten makina, osagarri, erreminta eta lanabesak prestatzea, segurtasun-baldintzak betez.

EI3.1 Josteko makina-mota ezberdinak sailkatzea eta eskaintzen dituzten prestazioak deskribatzea.

EI3.2 Josteko makinaren osagarriak identifikatzea, hala nola oihalak prentsatzekoa, gidariak, orratzak eta abar, eta horien aplikazioak deskribatzea.

EI3.3 Josteko makina-mota ezberdinak eta puntada normalizatuen grafiko eta eskemak erlazionatzea.

EI3.4 Makinen parametro eta elementu operatiiboak azaltzea, baita material eta prozesuen arabera doikuntza ere.

EI3.5 Prozesu bakoitzean parte hartzen duten makinaren mantentze-lanen ziklo eta puntuak ezagutzea.

EI3.6 Eskuz mihizatzeko —josiz edo itsatsiz— eragiketetan erabiltzen diren erreminta, lanabes eta osagarriak sailkatu eta erlazionatzea, prozesuaren eta lortu beharreko helburuaren arabera.

EI3.7 Makinak manipulatzeko eta mantentze-lanen eragiketetan kontuan izan beharreko segurtasun- eta osasun-arauak deskribatzea.

EI3.8 Jantzigintza-prozesu baterako makina eta erremintak prestatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren arabera eragiketa-segida ezagutzea.
- Parte hartzen duten makinak eta elementu operatiiboak identifikatzea.
- Puntada- eta orratz-motak identifikatzea.
- Behar diren puntada-mota eta hari-kopurua egiaztatzea.
- Makinaren arabera puntada osatzen duten elementu operatiiboak identifikatzea.
- Makinan haria sartzeari buruzko grafikoa interpretatzea.
- Osagarriak non jarri behar diren ezagutzea, hala behar duten josturetarako.
- Eskuz mihizatzeko —josiz edo itsatsiz— eragiketetan behar diren erreminta eta lanabesak identifikatzea.
- Arrisku potentzialak eta norbera babesteko baliabideak ezagutzea.
- Lehen mailako mantentze-lanen eragiketak identifikatzea.

A4: Materialak eskuz mozteko ekipo osagarriak prestatzea, baita horien osagarri eta erremintak ere, segurtasunez.

EI4.1 Eskuz mozteko ekipo ezberdinak eta horien osagarri eta prestazioak identifikatzea.

EI4.2 Eskuz mozteko prozeduran material ezberdinek duten portaera azaltzea.

EI4.3 Eskuz mozteko ekipoak eta horien osagarriak prestatzea, moztuko diren material-moten eta horien erabileraren arabera.

EI4.4 Eskuz mozteko eragiketen —zabaltzea, markatzea, moztea, etab.— segida deskribatzea, baita materialen arabera kontrolatu beharreko parametroak ere.

EI4.5 Mozteko makinak —makina, erremintak, lanabesak, etab.— manipulatzeko eta mantentze-lanen eragiketetan kontuan izan beharreko segurtasun- eta osasun-arauak deskribatzea.

EI4.6 Jantzigintza-prozesu baterako mozte-makina espezifikoa bat ezagutu eta prestatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren arabera eragiketa-segida ezagutzea.
- Eskuz mozteko makina identifikatzea, eta, hala badagokio, baita behar diren erreminta, lanabes eta osagarriak ere.
- Mozteko elementuen ezaugarriak identifikatzea, eta erabiltzeko moduan daudela egiaztatzea.
- Moztu beharreko materialaren gainean zatiak markatzeko eragiketak identifikatzea.
- Arrisku potentzialak eta babesteko baliabideak identifikatzea.
- Lehen mailako mantentze-lanen eragiketak identifikatzea.

A5: Egindako artikuluen akabera egiteko makinak eta beste ekipo osagarri batzuk prestatzea, baita horien osagarri eta erremintak ere, segurtasunez.

EI5.1 Lisatzeko ekipo ezberdinak eta horien euskarri, osagarri eta prestazioak identifikatzea.

EI5.2 Lisatzeko ekipoak eta horien osagarriak erlazionatzea arroparen osagai-motaren arabera aplikazioarekin.

EI5.3 Tarteko eta amaierako lisatze-teknikak azaltzea, baita ehun-produktua osatzen duten zuntzen ezaugarrien arabera kontrolatu beharreko tenperatura-, hezetasun-, denbora- eta presio-parametroak ere.

EI5.4 Tarteko eta amaierako lisaketen arteko ezberdintasunak deskribatzea, osagaiaren kokapenari edo lisatu beharreko artikuluari dagokionez.

EI5.5 Osagarrien —lisaburdinen tefloizko xafla, orkoiak, forma askotako kuxinak, txarrantxa-lisaburdina, etab.— erabilera eta doikuntza eta lisatze-parametroak erlazionatzea, lisatu beharreko artikularen material eta kokapenaren arabera.

EI5.6 Kolpekatze- edo errematxatze-mekanismoak eta botoiak forratu eta errematxeak, krisketak edo botoiak presioz jartzeko osagarriak eta abar dituzten makinak identifikatzea, jantzigintza-artikuluetan duten aplikazio eta erabileraren arabera.

EI5.7 Akaberak egiteko ekipoen funtzionamendua eta mantentze-lanak deskribatzea, segurtasun- eta osasun-arauen aplikazioa kontuan hartuz.

EI5.8 Jantzigintza-prozesu baterako beharrezkoa den lisatze-ekipoa ezagutzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren arabera eragiketa-segida ezagutzea.
- Lisatzeko ekipoak eta beharrezko osagarriak identifikatzea, eta erabiltzeko moduan daudela egiaztatzea.
- Kontrolatu beharreko lisatze-parametroak identifikatzea.
- Tarteko eta amaierako lisaketa egiteko eragiketarako kokapena ezagutzea.
- Behar diren lisatze-eragiketak identifikatzea.
- Arrisku potentzialak eta langilea babesteko baliabideak identifikatzea.
- Lehen mailako mantentze-lanen eragiketak identifikatzea.

Edukiak

1. Ehun-zuntzen identifikazioa.

- Ehun-zuntz motak.
 - Zuntz naturalak.
 - Zuntz artifizialak.
 - Zuntz sintetikoak.
- Ehun zuntzak eskuratzea eta fabrikatzea.
- Ehun-zuntzen propietateak.
 - Ukitua, dirdira eta kolorea.
 - Beroaren kontserbazioa.
 - Hezetasunaren absortzioa.
 - Elastikotasuna.
 - Zahartze, urratze, trakzio, kimika eta eguzki-argiarekiko erresistentzia.
 - Erreaktibotasun kimikoa.
- Ehun-zuntzak ezagutzeko oinarriko teknikak.
- Begizko ikuskapena.
- Entsegu pirognostikoak.
- Azterketa mikroskopikoa.

2. Ile-larru eta larruaren ezaugarriak ezagutzea.

- Ile-larruaren egitura.
- Ile-larruaren zatiak.
- Ile-larru motak.
- Ile-larru zurratuak identifikatzeko prozedurak eta aplikazioak.
- Ile-larruen akats nagusiak.
 - Akats naturalak.
 - Pertsonen eragindako akatsak: kontserbazio, zurratze eta manipulazioaren ondoriozkoak.
- Ile-larru eta larruen manipulazioa eta sailkapena.
- Ile-larruak tamaina, lodiera, kalitate edo akaberaren arabera sailkatzea.
- Kontserbazio-prozedurak.
- Ile-larru eta larruen garbiketa eta mantentze-lanak.

3. Ehun eta larruzko artikulua konpondu eta moldatzeko ehun-produktuak erabiltzea.

- Hariak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
 - Harien zenbaketa.
 - Bihurdura. Propietateak.
 - Haria sortzeko prozesua. Irutea.
 - Hariak identifikatzea, entsegu errazen bidez.
 - Jantzigintzarako hariaren espezifikazioak.
- Ehunak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
 - Zulo-brodatuzko ehunak. Lotura nagusiak.
 - Puntuzko ehunak.
 - Ehundu gabeko oihalak.

- Ehunak ezagutzeko oinarriko metodoak.
 - Arropak eta etxeko artikulua konpontzeko osagarriak eta produktu osagarriak.
 - Ehun eta material laminatuak.
 - Horniak eta material osagarriak.
 - Betegarriak.
 - Osagarri eta/edo osagai aurrefabrikatuak.
 - Itsagarriak, silikonak eta disolbatzaileak: ezaugarriak, kontserbazioa eta segurtasunez erabiltzea.
- 4. Makina, lanabes eta osagarriak prestatzea jantzigintzako materialak mozteko.**
- Jantzigintzako materialei aplikatutako mozketa-motak.
 - Ohiko mozketa: ezaugarriak eta aplikazioak.
 - Funtzionamendu- eta erabilera-ezaugarriak.
 - Mozketaren parametroak.
 - Mozteko mahai, tresna eta osagarri konbentzionalak.
 - Mozteko erreminta eta osagarriak. Motak eta aplikazioak.
 - Zabaltzeko mahai eta orgak.
 - Mozteko mahai eta ekipoak.
 - Etiketatzeko mahai eta erremintak.
 - Mantentze-lan prebentiboak:
 - Lubrifikazioa eta garbiketa.
 - Osagarriak muntatzea eta desmuntatzea.
 - Makinak materialaren arabera doitzea.
- 5. Jantzigintza-alorreko mihiztatzeko makina, erreminta, lanabes eta osagarriak prestatzea.**
- Josteko makinak. Funtzionamendu- eta erabilera-ezaugarriak.
 - Josteko makinaren sailkapena, lan-motaren arabera.
 - Atzera-puntada bikoitz zuzeneko makinak, arraste arrunt, bikoitz eta hirukoitzekoak.
 - Sigi-sagako makinak.
 - Kate-itxurako brodatu bikoitzak egiteko makina.
 - Ehunen ertzak puntada luzez josteko makinak (*Overlock*).
 - Makina bereziak (botoi-zuloak, botoiak, barrenak, etab.).
 - Itsasteko eta soldatzeko makinak.
 - Josteko makinaren sailkapena, puntada-motaren arabera.
 - Klasea: 100. Kate-itxurako brodatu bakuneko puntadak.
 - Klasea: 200. Eskuz egindako puntaden imitazioa.
 - Klasea: 300. Puntada zuzena.
 - Klasea: 400. Kate-itxurako brodatu anizkuneko puntadak.
 - Klasea: 500. Ehunen ertzak josteko puntada luzeak.
 - Klasea: 600. Estaltzeko puntadak.
 - Josteko makinaren organo, elementu eta osagarriak.
 - Funtzionamendua eta erregulazio, doikuntza eta mantentze-lanak.
 - Itsasteko erreminta eta osagarriak. Motak eta aplikazioak.
 - Mantentze-lan prebentiboak:
 - Lubrifikazioa eta garbiketa.
 - Osagarriak muntatzea eta desmuntatzea.
 - Makinak materialaren arabera doitzea.
- 6. Jantzigintza-alorreko akaberak egiteko makina, lanabes eta osagarriak prestatzea.**
- Ondoko lan hauek egiteko prentsak eta osagarriak: botoiak forratzea, errematxe, krisket edo botoiak presioz jartzea.
 - Hainbat materialetako eskuilak. Lurruneztagailua.
 - Tindatzeko pistola. Distira emateko produktuak eta anilinak.
 - Lisatzeko ekipoak: ohiko mahaia eta berrikustekoa, mahukak lisatzekoarekin.
 - Eskuzko lisaburdinak. Motak eta aplikazioak. Erregulazioa, doikuntza eta mantentze-lanak.
 - Lisatzeko osagarriak: lisaburdinen tefloizko xafila, orkoiak, forma askotako kuxinak, txarrantxa-lisaburdina, etab. Erregulazioa, doikuntza eta mantentze-lanak.
 - Poltsaratzeko eta tolesteko makinak.
 - Funtzionamendu- eta erabilera-ezaugarriak.
 - Mantentze-lan prebentiboak:
 - Lubrifikazioa eta garbiketa.
 - Osagarriak muntatzea eta desmuntatzea.
 - Makinak materialaren arabera doitzea.

7. **Mozteko, mihizatze eta akaberak egiteko makinaren prestaketan prebentzio-, segurtasun- eta ingurumen-arauak aplikatzea.**
- Aplikatu beharreko prebentzio-arauak.
 - Arriskuen identifikazioa eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak mozteko, mihizatze eta akaberak egiteko makinaren prestaketan.
 - Norbera babesteko ekipoak.
 - Makinen gailuak segurtasun aktiborako.
 - Aplikatu beharreko ingurumen-araudia.
 - Ingurumena babesteko neurriak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak